

### Zer da? Zertarako da?

Laguntza hauen xedea da eskaera egiten dutenen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea zati batean, dagoeneko etxebizitza errentan hartuta daukatenean eta horretara bideratuak dauden gainontzeko laguntzetarako (Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntza) eskubiderik ez dutenean.

Eusko Jaurlaritzak onartuak dituen alokairu laguntzen deialdiek, hau da, Gaztelagun (Alokabide), DSBEn EPO laguntza (Lanbide), GLL edo Prestazio Subjektiboaren Eskabidea (Hernaniko Zerbitzu Sozialak), lehenetsua izango dute udal laguntza hauekiko. Hori horrela, eskatzaileak derrigorrez eta lehenetsunez tramitatu izan beharko du Jaurlaritzaren laguntza, eta hura lortzen ez badu bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Eusko Jaurlaritzaren laguntza derrigorrez tramitatu behar horrek salbuespen bat izango du, hain zuzen ere udal laguntzen kudeatzaileak objektiboki zehazten baldin badu eskatzaileak ez litzuzkeela beteko, inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak.

Dirulaguntza hauen azkeneko helburua hau da:

Bereziki pertsona gazteei laguntzea euren emantzipazio bidean.

Modu orokorrean, Hernanin alokairuko etxebizitza eskuratzea erraztea.

Deialdiaren epea urte naturala izango da. Diruz lagunduko diren alokairu-gastuak deialdia zabalitzen den urte horretako urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak izango dira.

### Nork eska dezake?

Gazteek (18-35 urte bitartekoak) - "A-Modalitatea: Gazteak".

Helduek (36 urtetik aurrerakoak) - "B-Modalitatea: Helduak".

### Onuradunak:

1. Pertsona fisikoek eskuratu ahalko dute dirulaguntza, bakarrik nahiz bizikidetzaren unitate batean bilduta bizi, baldin eta dagokion urteko deialdian jasotako baldintzak betetzen badituzte.
2. Dirulaguntza honen ondorioetarako, bizikidetzaren unitateak dira etxebizitza edo bizileku berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra dutenean, edo laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunagatik edo bigarren mailarainoko ezkon-ahaidetasunagatik, edo familia-harrerako harreman iraunkor batengatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman batengatik batuta daudenean.
3. Bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztiek, seme-alaba adingabeek izan ezik, deialdiari dagokion oinarrietan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

Salbuespen egoera batzuk aurreikusita daude (oinarri arautzaileen 9.1 artikuluan xedatutakoak):

1. Adinari lotuak
2. Etxebizitza titularkide izateari lotuak

### Bateraezintasunak:

- Helburu bereko dirulaguntzak (Gaztelagun, DSBE, EPO, EPE, GLL...)
- Babes publikoko etxebizitzak, ASAP, Bizigune...

### Bizikidetzaren unitateko kide guztiek betebeharreko baldintzak:

- Errolda eta errentamendu-kontratua bat etortzea adin nagusiko pertsonen kasuan. Hernanin erroldatuta egon behar da, gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin etenik gabe, dirulaguntza eskatzeko epea amaitzen den egunetik atzera kontatzen hasita.
- Alokairu-kontratuaren titular ez diren adin nagusiko pertsonak baleude etxebizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja-eskaera egin behar dute pertsona horientzat.

Inolako familia-loturarik ez edukitzea etxebizitzaren errentatzailearekin edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batekin, odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

Bizikidetzaren unitateko diru-sarreraren muga:

- Bakarka: 28.000€ garbi urtean.
- Kide bat baino gehiago: 39.000€ garbi urtean.



Bizikidetzta-unitateko kideek ezin dute izan etxebizitza bat jabetzan (salbuespenak badaude).

Bizikidetzta-unitateko kideek egunean izango dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Eskatzailea edo bizikidetzta-unitateko kideetako bat antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten onuraduna izan badaiteke, ezin izango du dirulaguntza hau jaso (administrazio honek edo besteren batek emana).

Bizikidetzta-unitateko kideak ez dira egongo edonolako dirulaguntzak jasotzea eragozten duen inolako egoeratan.

### **Alokairu-kontratuak, honakoak bete behar ditu:**

Errentakide guztiak banan-banan orri guztietan sinatuta egongo da.

Gutxienez 12 hilabeteko iraupena edukiko du.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistroan inskribatua egon behar da. Gehienezko errenta hilean 750 eurokoa.

### **Aurkeztu beharreko agiriak**

#### **1. Derrigorrez aurkeztu behar direnak:**

1. [Dirulaguntza eskabide-orri ofiziala](#), behar bezala beteta eta sinatuta (hhzn edo web-orrian lortu daiteke).
2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren, pasaportearen edo egoitza txartelaren fotokopia. Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia edo jaiotza-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Dokumentazio hau beharrezkoa izango da, kasu guztietan, senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.
3. Etxebizitzan bizi diren kideen izen-abizenak eta NA, pasaporte edo egoitza txartelaren zenbakia, Udalak egiaztatu dezan Biztanleen Udal Erroldan, bizikidetzta-unitate berekoak izan ala ez, Udalak Biztanleen Udal Erroldan egiaztatu ahal izan dezan.
4. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa.
5. Alokairu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistro edo fidantza gordailuan utzi izanaren frogagiria.
6. Eskatzailearen (eskatzaileen) kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria. (Norbere banketxeari eskatuta).
7. Errentaren azkeneko ordainagiria (hilekoa), banku-transferentziaren edo banku-agiriaren bidez egina eskatzailearen izenean.
8. Bizikidetzta-unitateko kide guztien ekitaldiko diru-sarrera eta zergen gaineko honako dokumentu hauek:

- PFEZaren aitortpena egitera behartua ez dagoenak honako hauek eman beharko ditu:

- Besteren konturako langileak badira: kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordin guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu-emaileak emandakoa (10T).
- Pentsiodunak edo bekadunak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenak badira (Zerbitzu Sozialetako laguntzak barne): ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.

#### **9. Etxebizitza baten titular-kide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:**

- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.
- Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.
- Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.





## 2. Hernaniko Udalarari baimena ematen ez bazaio, ekarri beharrekoak (aipatutakoez gain):

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ogasun higiezin gaineko ondasunen ziurtagiria.
2. Espainiako Haziendak egindako ogasun higiezin gaineko ondasunen ziurtagiria.
3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitorpena egitera behartuta dagoenak, edo dagoeneko egina duenak, PEFZ Errenta Aitorpena laburpena izeneko Foru Ogasunaren ziurtagiria.
4. Azken 5 urtetako lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.

## 3. Zinpeko aitorpenak (eskaera orriko 4. atala bete eta sinatu)

1. Zinpeko aitorpena, Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak egunean daudela adierazten duena.
2. Beste diru-sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziko da) badaudela eta/edo beste erakundeetan diru-laguntza eskatu dutela adierazten duen zinpeko aitorpena.
3. Zinpeko aitorpena, orokorrean edonolako diru-laguntzak jasotzea eragozten duen egoeran ez dagoena. Halaber, oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen dituela zinez aitortu beharko du bai eskatzaileak bai eta bizikidetzaren bereko adin-nagusiko pertsona guztiak ere.

## 4. Salbuespen kasuetan

- o Bananduta, dibortzio edo izateko bikote amaituen kasuan:

Seme-alaba adingaberik badago: bananduta edo dibortziatuta egonez gero, edota amaitutako izateko bikote baten kide izanez gero, hitzarmen arautzailea, eta seme-alaba adingabeen zaintza justifikatzen duen epai judiziala, hala badagokio, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatik mantenu-pentsioa.

- o Etxegabetzea denean, etxegabetzea erabaki duen epaia.
- o Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeria kasu bat denean, udaleko gizarte-zerbitzuen txostena.
- o Hondamendia denean, Hernaniko Udaleko zerbitzuek frogagiri gisa emandako txostena. Suntsitze-egoeran dauden etxebizitzaren kasuan, hori aitortzen duen legezko agiria.

## 5. Dagokion kasuan:

-Lanbidek igorritako ebazpena (EPO kobratzea dagokion edo ez adierazten duena).

-Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Gaztelagun alokairu-laguntza kobratzeka dagokion edo ez adierazten duena).

-Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Eskubide Subjektiboaren Prestazioa kobratzea dagokion edo ez adierazten duena).

6. Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

### **Nola eskatzen da?**

**Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-18:30**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

**Telefonoa:** informazio orokorra **943 337000** telefonora deituz.

**Internet:** udalaren Internet: [www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak](http://www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak) web orriaren bidez eskaera-orria bete **eta udal erregistroan aurkeztu daiteke.** [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) web orriko

egoitza elektronikoa

**Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

### **Zenbat kostatzen da?**

Doan

### **Eskaerak aurkezteko epea**

Urteko deialdian Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean adierazitako epea.



## Prozeduraren epea

Sei hilabete eskabideak aurkeztu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

### Prozeduraren tramiteak

- Eskaerak aztertu eta dokumentazioa falta bada errekerimendua egin.
- Etxebizitza Sailaren txosten teknikoa.
- Behin-behineko erabakia, Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpenaz.
- Interesdunari jakinaraztea. Alegazioen epea zabaltzea.
- Alegazioak aztertzea.
- Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpena.
- Ordainketarako: onuradunek alokairuaren ordainagiriak aurkeztuko dituzte (+ egoera aldaketako agiriak).
- Etxebizitza Sailaren ordainketa-proposamena, lehenengo orainaldiari dagokion diru-laguntza.
- Kontu-hartzailatzara bideratzea.
- Zuriketarako dokumentuak aurkezteko epea ebazpenean zehaztuko da.

### Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura

1. Eskaera jaso eta egiaztatu.
2. Sarrera erregistroa eman eta kopia interesdunari itzuli.
3. Etxebizitza Arlor bideratu.

### Tramitzeko ardura duen udal saila

Etxebizitza arloa.

Informazio gehiago: 943 575433

### Nork onartzen du

Tokiko Gobernu Batzarrak

### Araudi aplikagarria

Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Hernaniko Udalaren udal dirulaguntzen araudia 2004koa (GAOn argitaratua 2005-02-18)
- Hernaniko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa 2023-2025 (GAOn argitaratua 2023ko urtarrilaren 12an).

### Oharrak

**Agiri lagungarriak** Dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta dagokion urteko deialdia.

**Informazioaren balio-aldia** 12 hilabetekoa, urte naturala; urtarriletik abendura.

Alokairurako dirulaguntzak finantzatzeko diru-baliabideak Hernaniko Udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak erabiliko dira. Urteko deialdian zehaztuko dira partida(k) eta kopurua(k), betiere "A-Modalitatea"-Gazteak eta "B-Modalitatea"-Helduak berezitez. Bi modalitate hauetako partidak lotesleak izango dira, betiere modalitate bakoitzeko eskari guztiak aztertu eta esleituta izandakoan dirua soberan gelditzen bada.

